

2021/02/27

NEWSLETTER FEDERALA



HITZAURRE LABUR BAINA BEHARREZKOA DUTEN DEIALDIAK

Adiskide maitea:

Ikusten duzunez, eskuetan duzu **datarren ostegunean, hilak 4**, egingo dugun Euskal Herriko Federalisten Elkartearen bilera baterako deialdia. Hobeto esanda, bi deialdi dituzu, ez baitugu bilera bakar bat izango, bi bilera baizik.

Horietako lehena, Urteko Ohiko Biltzarra da, atzeratu behar izan duguna bizi dugun egoera bereziagatik. Horretan, Elkarteak orain arte egindakoaren balantzea egingo dugu eta aztertuko ditugu elkartearen egoera zein eman beharreko hurrengo urratsak. Honekin batera doakizu biltzarraren bilerarako aztergaien zerrenda.

Bigarren batzarra ezohikoa da, eta aurrekoa amaitu eta berehala egingo dugu. Horren helburua da Euskadiko Europazale Federalisten Batasunaren Euskal Kontseilua elkartearekin bat egitea, euskal herritarren artean presentzia federalista areagotzeko eta Espainiako eta Europako federalismoari egiten diogun ekarpena indartzeko. Datozen egunetan, horri buruzko dokumentazio espezifikoa jasoko duzu.

Bi batzarrak modu telematikoan egingo dira Zoom plataformaren bidez, eta horietan parte hartzeko gakoak eta jarraibideak datarren asteartean iritsiko zaizkizu bide beretik. Espero dugu teknologiak aukera emango digula elkar ikusteko iragarritako topaketan. Horretarako, ordenagailu, tablet edo Interneterako konexioa duen telefono bat baino ez da behar.

Besarkada federalista bero bat

www.federalistak.eus

 @federalistak

EUSKAL HERRIKO FEDERALISTAK ELKARTEKO BILTZAR NAGUSIAREN III. OHIKO BILKURARAKO DEIALDIA

Presidente andreak agindutakoaren arabera, dei egiten dizuet, elkarteko kide zaren neurrian, 2021ko martxoaren 4an, ostegunean, egingo dugun Elkartearen Biltzar Nagusiaren III. ohiko bilkurara ager zaitez. Bilkura 18:30etan hasiko da lehen deialdia, bigarren deialdia, 19:00etan (arren, lehen

deialdirako puntu-puntu izatea eskatzen da). Bilkura bide birtualean egingo da, pandemia oinarri hartuta ezarrita dauden mugitzeko eta biltzeko neurri murriztaileek behartuta.

Bilkuran aztertuko diren gaiak:

1. 2020. urtean egindako jardueri buruzko txostena
2. 2021. urtean egiteko jardueren plana
3. 2020. urteari buruzko txosten ekonomikoa
4. Proposamen federalarekin lotuta, egungo egoera politikoari buruzko iritzia
5. Zuzendaritza Batzordearen kideen berrestea Elkarte berria sortu bitarteko eperako.
6. Galde-eskeak

Bilbon, 2021ko otsailaren 21ean

Josu Ugarte Gastaminza, idazkaria

EUSKAL HERRIKO FEDERALISTAK ELKARTEKO BILTZAR NAGUSIAREN I. OHIZ KANPOKO BILKURARAKO DEIALDIA

Lurdes Auzmendi Aierbe Presidente andreak agindutakoaren arabera, dei egiten dizut, elkarteko kide zaren neurrian, 2021ko martxoaren 4an, ostegunean, egingo dugun Elkartearen Biltzar Nagusiaren I. ohiz kanpoko bilkurara ager zaitezen. Bilkura 20:00etan lehen deialdia egingo da, bigarren deialdia 20:30etan (arren, lehen deialdirako puntu-puntu izatea eskatzen da). Bilkura bide birtualean egingo da, pandemia oinarri hartuta ezarrita dauden mugitzeko eta biltzeko neurri murriztaileek behartuta.

Bilkuran aztertuko diren gaiak:

1. Unión de Europeístas Federalistas Elkartearekin bat egiteko proposamena.
2. Elkarte batu berriaren behin-behineko Estatutuen onespena.

Bilbon, 2021ko otsailaren 21ean

Josu Ugarte Gastaminza, idazkaria